



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
**bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketan**
argazkiak, **herriz herri**

Arrasate, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

2016ko azaroa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketan argazkiak,
herriz herri

Arrasate, 1960-2010

Bigarren edizioa

2016ko azaroa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena.	6
-------------	---

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

1. ETApn, ETAm, Komando Autonomoek eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	9
2. Triple A, BVE eta GAL-ek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	19
3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	25
4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak.	27

II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**.

Erabilitako iturri eta zerrendak.	33
-----------------------------------	----

Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

Erretratu bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

Aitortutako biktima horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzazieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutaz dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezurmamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

1. **ETApm, ETAm, Komando Autonomoek** eta **ETAk** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Luis Santos Hernandez

Data: 1974/12/17.

Adina: 52 urte.

Non jaioa: Alamedilla (Salamanca).

Destinoa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren tenienteordea.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Arrasateko Gurea zinema-aretoetik gertu, taberna batetik alde egin ondoren Ferial kalean pasieran zebilela.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, beste guardia zibil bat hil zuten: Argimiro Garcia Estevez. Santosek uniformeaz zeraman jantzita; Garcia, ordea, kale-jantzian zihoan.

2

Argimiro Garcia Estevez

Data: 1974/12/17.

Adina: 50 urte.

Non jaioa: Aldeadávila de la Ribera (Salamanca).

Destinoa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Lau alaba eta hiru seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETApm.

Heriotza-lekua: Arrasateko Gurea zinema-aretoetik gertu, taberna batetik alde egin ondoren Ferial kalean pasieran zebilela.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatu berean, beste guardia zibil bat hil zuten: Luis Santos Hernandez. Santosek uniformeaz zeraman jantzita; Garcia, ordea, kale-jantzian zihoan.

3

Constantino Gomez Barcia

Data: 1977/03/13.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Lugo.

Destinoa: Oñatiko (Gipuzkoa) kuartela.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Arrasaten, Bergarara (Gipuzkoa) doan errepidearen bidegurutzean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Beste bi agente zauritu zituzten: Miguel Santaella (oso larri) eta Jose Cas-
taño. Beste guardia zibil bat eta haren neskalaguna onik atera ziren.

4

Aurelio Salgueiro Lopez

Data: 1978/08/28.

Adina: 46 urte.

Non jaioa: Monforte de Lemos (Lugo).

Destinoa: Arrasateko (Gipuzkoa) Guardia Zibilaren kuartela.

Seme-alabak: Zazpi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuko kabo lehena.

Egilea: Komando Autonomo Antikapitalistak.

Heriotza-lekua: Arrasateko (Gipuzkoa) plaza batean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

5

Juan Luis Agirreurreta Arzamendi

Data: 1979/11/16.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Arrasateko Pinturas Velasco enpresako administraria.

Egilea: Komando Autonomo Antikapitalistak.

Heriotza-lekua: Bere etxetik gertu, Arrasateko Ignacio Zuloaga kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatua gertatu zen egunean egitekoa zen ohiko udalbatzarra bertan behe-
ra utzi zuen Arrasateko Udalak, eta hilketa salatze aldera, minutu bateko isilaldia egin zuten.

6

Mario Manuel Leal Baquero

Data: 1985/12/05.

Adina: 29 urte.

Non jaioa: Pontevedran, nahiz eta, zenbait iturriren arabera, Avilesen (Asturias) jaioa izan, gurasoak hantxe bizi izan baitziren denbora batez, eta gero, Pontevedrara itzuli (*Faro de Vigo*).

Destinoa: Aretxabaletako (Gipuzkoa) kuartela.

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Bere autoan, Arrasateko (Gipuzkoa) Renfeko tren-geltoki zaharreko aparkalekuan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

7

Antonio Ramos Ramirez

Data: 1986/06/08.

Adina: 32 urte.

Non jaioa: Espera (Cádiz).

Destinoa: Oñatiko (Gipuzkoa) kuartela.

Seme-alabak: Haurtxo bat. Emaztea sei hilabeteko haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibilaren kabo lehena.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Arrasateko San Andres auzoko taberna batetik irten eta emaztearekin batera autoan sartzera zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

8

Isaías Carrasco Miguel

Data: 2008/03/07.

Adina: 43 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Bidelan enpresan egiten zuen lan, AP-1 autopistako kobratzaile modura. UGTko kidea zen. PSE-EEko zinegotzi ohia Arrasateko Udalean (2003-2007). 2007ko hauteskundeetarako zerrendetan seigarren joan zen, baina ez zuten hautatu. Hori ikusirik, uko egin zion bizkartzainak izateari.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Bere etxetik oso gertu, Arrasateko Navas de Tolosa kalean, lanera joateko auto-
ra sartzen ari zela, bost tiro egin zizkioten, emaztea eta alaba nagusia aurrean zeudela.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

2. **Triple A**, **BVE** eta **GAL**-ek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Iñaki Etxabe Orobengoa

Data: 1975/10/05.

Adina: 39 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ostalaria. Zenbait senitartekorekin batera, Kanpazar gaineko Etxabe Enea ostatu-jatetxearen jabea zen.

Egilea: 1976an, Batallón Vasco Españolko (BVE) Baldarrain komandoak bere gain hartu zuen atentatua. Dena den, *Euskal Herria y la libertad* liburuan irakur daitekeenez, "zantzu ugari daude guardia zibilak izan ote ziren".

Heriotza-lekua: Kanpazar gainean, Elorrion, Etxabe Enea jatetxean.

Prozedura: Su-armaz eta gas-isuriz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Etxabe anaietako beste bat hiltzen ere saiatu ziren, baina jatetxe barruan ez-kutatzea lortu zuen. Hiru hilabete lehenago, lehegailu bat jarri zuten taberna horretan bertan; ekainaren 28an, beste bonba bat jarri zuten hildakoaren anaietako baten jatetxean, Baionako Udalaitz jatetxean, alegia; eta bi egun geroago, beste anaia baten jatetxean. Gainera, azken horri autoa erre zioten atentatuaren bezperan. Hurrengo batean, hilerriko oroitarria hautsi zuten.

2

Germán Agirre Irasuegi

Data: 1975/10/12.

Adina: 38 urte.

Non jaioa: Bergara (Gipuzkoa).

Bizilekua: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Taxilari jarduten zuen Arrasaten.

Egilea: Eskuin-muturra.

Heriotza-lekua: Legutioko "kuarteletik 500 metro eskasera", bai *Libertad Digitaleko* "In Memoriam" gehigarrian bai *Vidas Rotas* liburuan kontatzen denez.

Prozedura: Buruan hiru tiro, gertutik jota.

Datu gehigarriak: Hilketak hau astebete lehenago Iñaki Etxaberen aurka egindako atentatuarekin lotu izan dute, Agirrek, "antza denez, atentatu hari buruzko informazio zehatza baitzuen", Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak 2008an egindako "Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenak" zioenez.

3

Agurtzane Arregi Letamendi

Data: 1978/07/02.

Adina: 38 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Bizilekua: Urruña (Lapurdi).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Arropa-denda baten jabea.

Egilea: Triple Ako Adolf Hitler batailoia.

Heriotza-lekua: Donibane Lohizuneko (Lapurdi) Juri-Berri kalean, Chauvin Dragonetik gertu, Juan Jose Etxabe senarraren jatetxetik irten eta auto barruan zegoela, dozena bat tiro egin zizkioten.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Atentatua, Juan Jose Etxabe Orobengoa senarrari sei tiro jo zizkioten urdailan eta oso larri zauritu zuten.

4

Enrique Gomez Alvarez

Data: 1979/06/25.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Porqueros (Leon).

Bizilekua: Arrasate (Gipuzkoa). Gasteizen (Araba) ere bizi izan zen. Azkenaldian, Baionan (Lapurdi) bizi zen.

Seme-alabak: Bikotekidea haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Euskara ikasi ondoren, euskarako irakaslea izan zen Gasteizen, harik eta Arrasatera joan zen arte.

Egilea: Batallón Vasco Español (BVE).

Heriotza-lekua: Cristina Larrañaga bikotekidearekin batera autoan etxera zihoala, atzetik segika zituztela ohartu ziren. Autoa gelditu zuen, eta Baionako erdigunean dagoen Udalaitz tabernan sartu zen, telefonoz laguntza eskatzeko. Ohartzeko, baina, lau lagun tabernan sartu eta tiroka hasi zitzaizkien.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

5

Xabier Perez de Arenaza Sogorb

Data: 1984/03/23.

Adina: 35 urte.

Non jaioa: Aretxabaleta (Gipuzkoa).

Bizilekua: Arrasaten (Gipuzkoa) bizi zen umetatik.

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: 15 urte zituela hasi zen Gamey enpresan, doitzaile- eta munta-tzaile-lanetan. COEseko eta LABeko kidea izan zen. Bitan atxilotu zuten ETAko kide zela.

Egilea: GAL.

Heriotza-lekua: Miarritzeko (Lapurdi) gasolindegia batetik gertu, motor batetik bi tiro jo zizkioten buruan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Emilia Larrea Saez de Adana

Data: 1978/11/15.

Adina: 52 urte.

Non jaioa: Eskoriatza (Gipuzkoa).

Bizilekua: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Baserrian egiten zuen lan. Herrian arrautzak eta barazkiak saltzen aritzen zen.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Arrasateko bere baserrian eserita zegoen, bere seme-alabetako batekin eta Crescencia Vidaurreta izeneko bizilagun batekin batera. Azken hori ere balaz zauritu zuten.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Egun hartan bi tiroketa-saio egon ziren. Lehenbizikoan, Aretxabaletako zenbait guardia zibilek Komando Autonomoetako bi kide, Roberto Aranburu Iribarren eta Jose Maria Iturriotz Garmendia, hil zituzten, eta hirugarren bat, Kike Zurutuza Odriozola, zauritu. Handik gutxira gertatu zen bigarren tiroketa-saioa. Arrasateko kuarteletik zenbait guardia zibil bertaratu eta, kale-jantzian zeuden zenbait lagun armaturik ikustean (ez zieten igarri Aretxabaletako kuarteleko guardia zibilak zirela), haien aurka hasi ziren tiroka. Bigarren saio horretan, baletako batek Emilia hil zuen. Hiru herritar ere zauritu zituzten: Crescencia Vidaurreta, Juana Martin eta Alberto Beltran de Heredia. Komando Autonomoetako kideek ez zuten tirorik egin, Arrasateko Ikerketa Taldeak eta Eusko Kontseilu Nagusiko Herrizaingo Sailak lekukoen datu eta testigantzetan oinarriturik egindako txostenen arabera. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

4. **Egiletza argitu gabe** duten urraketak **eta** **bestelakoak**

1

Ambrosio Fernandez Recio

La Caixako kutzazain automatikoa ren aurka egindako erasoaren data: 2007/01/05etik 06ra bitarteko gaua.

Heriotza-data: 2007/03/03.

Adina: 79 urte.

Non jaioa: Burgos.

Bizilekua: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Erretiratu. Amat galdaketa-enpresan egin zuen lan, eta gero, Fagor kooperatiban.

Egilea: Kale borroka.

Heriotza-lekua: Gasteizko Txagorritxu ospitalean.

Datu gehigarriak: Gainerako bizilagun guztiak bezala, Ambrosio Fernandez ere etxetik aterarazi zuten, bera bizi zen eraikineko etxabea zegoen La Caixaren kutzazainari su eman ondoren. Lehendik ere arnasa hartzeko arazoak zituen, eta horrek eta kea inhalatu izanak nabarmen okertu zuten bere osasuna. Hala, urtarrilaren 8an, Ambrosio Fernandez ospitaleko ZIUn ingresatu zuten. Arrasateko udaltzain-buruak, Jose Luis Etxeberriak, familiaren bozeramaile moduan adierazi zuenez, agureak lehendik ere "espediente mediko txarra zuen, tronbosi bat izan zuen eta arnasa hartzeko zailtasunak zituen"; dena dela, etxe azpiko sutearen kea arnasteak ziur asko kalte egin ziola azpimarratu zuen. Bi hilabeteren buruan hil zen, martxoaren 3an. Ez da ezein zerrendatan ageri, baina Espainiako gobernuak terrorismoaren biktimatzat hartu zuen; izan ere, "medikuaren arabera, gau hartan gertatutakoak nabarmen okertu zuen agurearen osasuna, eta horren ondorioz hil omen zen" (*El País*, 2011/12/18).

II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**

1

Jose Luis Mondragon Elorza

Data: 1974/05/20.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Javier Zumalderen *Ahuntzak* taldeko kide ohia. 1969an, Ipar Euskal Herrian errefuxiaturik zegoela, Frantziako Poliziak atxilotu eta Ré uhartera deportatu zuten. Roque Mendez kidearekin batera, ETA alde batera utzi eta ekintza autonomo bat egitea erabaki zuen.

Egilea: Guardia Zibilaren eta Poliziaren operazio baten barruan.

Heriotza-lekua: Zodiak batean Hondarribiko Fraideen hondartzara iritsi, eta bertan zain zeuden poliziek eta guardia zibilek inguratu zituzten.

Datu gehigarriak: Argibide urria eta bertsio desberdinak dituen kasua da. Bertan hil zen komandoko beste kide bat ere, Roque Méndez Villada, eta onik atera zen haraino eraman zituen poliziaren infiltratua, Jesús Arrondo Marín “Cocoliso”. Bertsio ofizialaren arabera, Guardia Zibilarekin izandako tiroketa batean hil ziren. Patxo Unzuetak (*El País*, 1978/09/01: “Polizia zain zuten eta tiro egin zieten hiru tripulatazaileetatik biri”), Melchor Miralles eta Ricardo Arquesek (*El Estado contra ETA*: “hilketa”) eta Angel Rekaldek (*Mugalaris*, 150. or: “tranpa mortala” eta “tiroz josi zituzten”) gertaera nola deskribatu zuten ikusirik, metrailaketa izan zela pentsa liteke. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordeak –dekretu hori, egin-eginean ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeari eta biktima horiei ordainak emateari buruzkoa da– Roque Mendez Villadaren kasua aztertu zuen, gertaera berean hil baitzen, eta bere irizpenaren ondorioztat atera zuen ezetsi egiten zuela aitortpen-eskaria. Gaineratu dutenez, “Batzorde honek dauzkan datuen arabera, ez dago jasota gertakari hartan erreakzio armaturik izan zenik ontzian zeudenen aldetik. Dena den, kasuaren inguruabarrak hobeto ikertu behar izan ziren”.

2

Roberto Aranburu Iribarren

Data: 1978/11/15.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Arrasate (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Oñatiko Enpresa Tekniken Eskolan ikasi zuen, eta Feliciano Aranzabal enpresako langilea izan zen. Mondragonés futbol-taldeko jokalaria izan zen. Komando Autonomoetako militantea izan baino lehen, GAI eta LAIAko kidea izan zen.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Arrasateko (Gipuzkoa) erdigunean.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak.

Datu gehigarriak: Argibide urria eta bertsio desberdinak dituen kasua da. Komando Autonomoetako beste kide bat ere hil zen: Jose Maria Iturriotz Garmendia. Kike Zurutuza Odriozola zaurituta gelditu zen. Aretxabaletako eta Arrasateko guardia zibilen arteko tiroketa batean, herriko bizilagun bat, Emilia Larrea, hil zen, eta hiru zauritu egon ziren: Crescencia Vidaurreta, Juana Martin eta Alberto Beltran de Heredia. Eusko Kontseilu Nagusiaren Herrizaingo Sailak adierazi zuenez, "Segurtasun-indarrei irmotasunez eskatu behar zaie, urduritasun partikularren edo jazarpen-sentsazioen gainetik, bete dezatela ordena publikoa bermatzeko duten eginkizuna. Izan ere, lasaitasuna galtzeak beren funtzioa betetzea galarazten die segurtasun-indarrei. Jose Maria Iturriotz eta Roberto Aranbururen heriotzen berri publikoki eman behar dute, jakin beharra baitago ea hildakoak atxilotzeko erabilitako bitartekoak proportzionalak izan diren edo beste bitartekorik erabil zitekeen". Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordeak –dekretu hori, egin-eginean ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeari eta biktima horiei ordainak emateari buruzkoa da– Jose Maria Iturriotz Garmendiaren kasua aztertu zuen, gertaera berean hil baitzen, eta bere irizpenaren ondorioztat atera zuen ezetsi egiten zuela aitorten-eskaria. Gaineratu dutenez, "ezin du baloratu kasu honetan giza eskubideak urratu ote ziren, hala nola indarraren gehiegizko erabilera egin ote zen, gertaerak ez baitziren eraginkortasunez ikertu. Dena den, kasuaren inguruabarrak hobeto ikertu behar izan ziren".

3

Jose Maria Iturriotz Garmendia

Data: 1978/11/15.

Adina: 24 urte.

Non jaioa: Legorreta (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Aita zapataria zen Legorretan, eta hortik zetorkion “Zapa” goitizena. Maisutza industrialeko ikasketak egin zituen Arrasateko Eskola Politeknikoan. Ikasle Batzordeetako kidea izan zen, bai eta ETA VI-koa eta ETAp-koa ere, Komando Autonomoetan sartu aurretik.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Arrasateko (Gipuzkoa) erdigunean.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak.

Datu gehigarriak: Argibide urria eta bertsio desberdinak dituen kasua da. Komando Autonomoetako beste kide bat ere hil zen: Roberto Aranburu Iribarren. Kike Zurutuza Odriozola zaurituta gelditu zen. Aretxabaletako eta Arrasateko guardia zibilen arteko tiroketa batean, herriko bizilagun bat, Emilia Larrea, hil zen, eta hiru zauritu egon ziren: Crescencia Vidaurreta, Juana Martin eta Alberto Beltran de Heredia. Eusko Kontseilu Nagusiaren Herrizaingo Sailak adierazi zuenez, “Segurtasun-indarrei irmotasunez eskatu behar zaie, urduritasun partikularren edo jazarpen-sentsazioen gainetik, bete dezatela ordena publikoa bermatzeko duten eginkizuna. Izan ere, lasaitasuna galtzeak beren funtzioa betetzea galarazten die segurtasun-indarrei. Jose Maria Iturriotz eta Roberto Aranbururen heriotzen berri publikoki eman behar dute, jakin beharra baitago ea hildakoak atxilotzeko erabilitako bitartekoak proportzionalak izan diren edo beste bitartekorik erabil zitekeen”. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuko Balorazio Batzordeak –dekretu hori, egin-eginean ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeari eta biktima horiei ordainak emateari buruzkoa da– kasu hau aztertu zuen eta bere irizpenaren ondorioztat atera zuen ezetsi egiten zuela aitorten-eskaria. Gaineratu dutenez, “ezin du baloratu kasu honetan giza eskubideak urratu ote ziren, hala nola indarraren gehiegizko erabilera egin ote zen, gertaerak ez baitziren eraginkortasunez ikertu. Dena den, kasuaren inguruabarrak hobeto ikertu behar izan ziren”

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.